

Abarrak

MIKEL GARCIA

Umore gupidagabea

You Will Meet a Tall Dark Stranger. Zuzendari eta gidoilari: Woody Allen. Aktoreak: Gemma Jones, Josh Brolin, Naomi Watts, Anthony Hopkins, Lucy Punch. AEB-Britainia Handia-Espainia. 98 minutu

ISTORIOEN kokalekua AEBetatik Europara aldatu duenetik, komedia arin eta korapilatsuetara gauzka ohituta Woody Allenek, pretentsio handirik gabe, ezer frogatu beharrik ez duenaren lasaitasunarekin. Baina estilo axolagabe hori baliatuta, egungo gizarte heldugabe eta zikoitzari gordinki barre egiten dio zuzendariaren azken filmak.

Narratzaile bikaina dela argi utzi du, eta gai dela maisutasunez familia bat nola desegiten den kontatzeko, umoretsu baina gupidagabe. Pesimista handia da newyorktarra eta komedia arinez mozorrotuta kontu gaitzei heldu die zirikatzaile, horietako asko ohikoak bere filmografian: maitasunaren amaiera,

zahartzeari beldurra, arrazoa vs. sineskeria –eta sineskeria da garaile, inozo ezjakinak zoriotsuago baitira–, diru-gosea, familiarteko harremanak... Eta porrota. Umorearekin egingo ez balu, gizarte patetiko eta etsigarria irudikatuko liguke Woody Allenek. Horrelakoxea baita: gidoian ezusteko bihurtune arriskutsuak hartzeko gai, pertsonaiak amildegira jaurtiz, erreskatatzeko inongo intentzio barik.

Bikain dago Anthony Hopkins, adinaren krisiak jota, gimnasioan eta solariumean sartuta eta bere alaba izan zitekeen aktore ile-hori ederrarekin maiteminduta. Finak baita ere Gemma Jones eta Naomi Wattsen antzezpenak.

Eta gustuko ez baduzu lasai, laster izango da aretoetan zuzendariaren sorkuntza berri bat, bere erritmo frenetikoari jarraiki jada beste film bat egiten ari baita, Carla Bruni tarteko. Beti gauza bera egiten, eta inoiz errepikatu gabe. Horretarako ere behar da talentua.



Euskaltegiak eta euskara ikasteko zentroak

- **Ika:**
945 154341 - www.ikanet.net
- **Aek:**
945 252400 - www.aek.org
- **Udaberria:**
945 223433
udaberria@udaberria.net
- **Hegoalde:**
945 284196
hegoeusk@euskalnet.net
- **Bai & by:**
945 157110
gasteiz@baiby.com
- **Mondragon Lingua:**
945 150155
www.mondragonlingua.com
- **Escuela Oficial Idiomas:**
945 139046
www.eoivitoria-gasteiz.org

Euskaraz

**maite
zaitut**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAIA
Hizuntza Politikako Sailburuzardetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

matrikulatu zaitez